ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko urtarrilaren 29a, astelehena • 12 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

### OGASUN SAILA

**Hilerriak onik zaintzeari dagokion tasaren 2024ko errolda fiskalak jendaurrean jartzea**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita hilerriak onik zaintzeari dagokion tasaren 2024ko errolda fiskalak, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, haiek aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluarekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa ordaintzeko epea 2024ko martxoaren 15etik maiatzaren 15era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 19an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*
*JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2024.01.29 06:33:08 Z